


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 12a / 605. zenbakia

TORREKUAN JARRIKO
DUTE HAMABOST EGUN BARRU

**AUTOBUS
GELTOKIA
HEMEN**



BATZOKIA: 100. URTEURRENA OSPATZEN/4 • KULTURA: ARRASATE BIG BAND ZAPATUAN ZABALOTEGIN/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 12
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 13
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

DOMEKA, 14
ZABALA, Barrenkalea 25 943 76 16 87

ASTELEHENA, 15
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 16
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 17
MOZOS, Iparrañire 2 943 76 12 15

EGUENA, 18
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariatza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegarieta Domekak: 11:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	San Lorentzo Zapatuak: 20:00.
Sierbak Lanegunak: 19:30.	Angiozar Domekak: 11:00.
Osintxu Domekak: 12:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00.
Elosu Domekak: 11:00.	Mizpirualde Lanegunak: 11:45.
Ubera Domekak: 10:30.	Antzuola Domekak: 10:00, 11:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Elorregi Domekak: 10:30.	Uzarraga Domekak: 10:00.
	Elgeta Lanegunak: 09:00.
	Zapatuak: 19:30.
	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1980AN JAIOTAKOAK
1980an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Txarran-txan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Tartufo jatetxean (943 76 35 51).

1934AN JAIOTAKOAK
1934an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Torrekua jatetxean, 14:45ean. Izenematea (12 euro aurrez) Torrekuan bertan.

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

1950EAN JAIOTAKOEN AFARIA
1950ean jaiotako enafaria abenduaren 4an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea (38 euro) Euskadiko Kutxan.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Txapligu taldekoek sukaldaritza ikastaroa izango dute bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, sukaldaritza dastatzea eta kanpo jolasak.

TXISKRILABI TALDEA
12-14 urte bitarteko gazte-txoak Udal Euskaltegiañ elkartuko dira bihar, zapatua. 14-16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etan daukate hitzordua.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina

Euskal abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina abian jarri zuen Jardunek 1994ko udazkenean. Kanpainan parte hartu zuten herritarren datuak Madrilera bidaltzeaz arduratu ziren Jardunekoak. Euskararen normalizatorako pauso garrantzitsuzat jo zuten ekimena, eta jasotako erantzuna bikaina izan zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Goseti"



Gose handikoa.
— Goseti utsa da gure txikixa.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA 6 °C
Eguaztena, 3

MAXIMOA 16 °C
Eguena, 4

ASTEKO EURIA (l/m²) 48,4 l

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	21 °C	6 °C	- 0,2 l/m²
Eguena, 4	16 °C	7 °C	0,3 l/m²
Egubakoitza, 5	14 °C	11 °C	0,2 l/m²
Zapatua, 6	14 °C	10 °C	- 0,1 l/m²
Domeka, 7	15 °C	9 °C	- 0,1 l/m²
Astelehena, 8	12 °C	8 °C	13,4 l/m²
Martitzena, 9	12 °C	9 °C	34,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

'MAR ADENTRO'

ZUZENDARIA: ALEJANDRO AMENABAR. **AKTO-REAK:** JAVIER BARDEM, BELEN RUEDA.

HARIA. Itsasoan gaizki jauzi egin da, Ramon Sampederu hogeita hamar urtez ohean egon da, eta modu duinean hiltzen utz diezaioten eskatuko du.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'SALVADOR ALLENDE'

ZUZENDARIA: PATRICIO GUZMAN.

HARIA. Duela 30 urtetik hona, Patricio Guzman 1973an Txilera gertatutakoa ikertzen dabil. Salvador Allende omentzeaz gain, hura ezagutu ez zuten belar-naldi berriei haren irudia erakustea da Guzmanen asmatu. Cannesko eta Donostiako zinemajaialdietan aurkeztu zuten dokumentala.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, azaroaren 18an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com




ATREBENTZIAEZPADA/ Udazken eta negu partean aisialdirako nahikoa eskaintza dago?



MATILDE FERNANDEZ
51 urte



ARANTXA CASTELO
43 urte




JON ZUMARRAGA
29 urte



MIREN LETURIA
68 urte



ALBERTO GONZALEZ
30 urte



JOSE RAMON MUXIKA
62 urte

Ez dut uste nahikoak direnik. Tabernan lan egiten dut eta ez daukat denbora libre handirik, baina jendearek entzuten diot ekintza gehiago behar direla, eskulan ikastaroak, esaterako.

Umeek nahikoa ekintza izaten dute Jardunek antolatuta, baina handitzen joan ahala aukerak gutxituz doaz. Guretzat aukerak badaude baina parte-hartzea txikia da.

Ni ez naiz joaten, baina uste dut nahikoa gauza antolatzen direla. Hala ere, haurrentzat gauza gehiago ipintzea ez legoke gaizki: zinema emanaldiak, jolasak kiroldegian...

Guretzat batzuetan egoten dira aukerak aisialdirako, orain ere UNEDen badira ikastaroak. Baina musika, antzerki saio edo zinema emanaldi hobeen falta sumatzen dut.

Bai, badira ekitaldi batzuk, baina nik ez dut joateko ohiturarik. Nagusientzat gauza gehiago antolatu beharko lituzkete, aspertu egiten baitira. Gazteek aurkitzen dute ongi pasatzeko modua.

Nire ustez bai, antolatuta daukat eguna eta ez naiz aspertzen. Baina gazteentzat ez dago nahikoa aukera, eta kanpora joaten dira. Gu gazte ginenean ongi pasatzen genuen Bergaran.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ACERALIA ENPRESA Labegaraieta inguruan bizi diren Markos Perezek eta Marijo Lonbidek idatzi digute, Aceralia enpresaren jokaera salatzen: "Arduratuta gaude Aceraliak egiten dituen isurketek izan dezaketen eraginagatik gure osasun eta lurrarengan. Isurketa hauek azken bolada honetan izugarriak dira. Goiko argazkia, esaterako, Gorla aldetik aterata dago, orain dela 15 bat egun". /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /4

Batzokia:
100 urte

Bergarako Batzokiaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldiak, gaurtik hasita.

KIROLA /8

Gazteak, sendo futbolean

BKEko lehen gazte mailako futbol taldea sailkapeneko bigarren dago, partidurik galtzeke.

KULTURA /12

Dani Laskurain, sarituta

Dani Laskurain bergararrak Aoitzeke Nazioarteko Pintura Lehiaketa irabazi du.

ASTEKODATUA

2

HILABETEZ ITXITA IZANGO DA MASTERREKA

Ur zikinen kolektoreko lanak direla eta, bi hilabetez itxita izango da Masterreka. Udaltzaingoak jakitera eman duenez, hurrengo astean itxiko dute. Ibargaraiko tarte bat otsailera arte itxi dute.

BESTEKEESANA

“

Hiru urte daramatzat Bergara Kirol Elkarteko presidente bezala eta nire helburua, kirol

erronkaz aparte, kirol gune berriarena da; Bergarako futbol taldeak futbol zelaia berea du eta hori ez dio inork kenduko, baina kezkatzen nauena herriko kirol instalazioen egoera da; nik aldagela berri batzuk eta harmaila berri batzuk eskatzearekin nahiko edukiko nuke, presidente bezala begiratuko banu bakarrik, baina lortu nahi dudana herri guztiarentzako ona eta probetxuzkoa izan daitekeen zerbait da. Hor gabilta Udalarekin hitz egiten ea guk aurkeztutako proiektua aurrera eramaterik badagoen, gure ustetan posible baita, baina kontu hauek etorkizunari begira planteatzen diren kontuak dira”
IÑAKI SAN JOSE / Bergara Kirol Elkarteko presidentea
‘Astelehenerako Goienkaria’/04-11-8

BERAIEKDIÑO/ Lander Juaristi



Zer idatzi?

Honako honetan ez dakit zertaz idatzi, asteartea da eta astelehenerako idatzi behar nituen 1650 karaktereak. Lehenik, eta pasa den larunbatean Donostian egin zen AHT-ren aurkako manifa aitzakiaz tartat hartuz, makroproiektu faraoniko zentzugabe honen aurka idaztea otu zitzaidan, Euskal Herriak dituen garraio arazoei erantzuten ez diela, garapen eredu oker batean oinarritzen dela, herrien garapena oztopatzen duela, etorkizuna hipotekatu, ama lurra zulatutu... baina jadanik esana dago dena, propaganda instituzionala irenstea nahi ez duenak hor dauzka datuak eta iritzi kontrajarriak, orain da Abiadura Handiko Trenari ezetz esateko momentua, pixka bat informatzeko ardura izan duenak badaki hori!

Proiektu hauetan pentsatzen jarrita, gure herriko etorkizuneko igerileku ikaragarri moderno eta garesti hori etorri zitzaidan burura;

benetan behar al zuen Bergarak honelako zerbait? Genituen igerilekuak berrituz ez al zegoen? Etorkizuneko zenbat proiektu itoko dira igerileku berriaren ur garestietan?

Dena den, Bergarari buruz idatzi behar banu, azken aldirian sumatu dudana bizi falta

“Herria hilda dagoela iruditzen zait, bizitza falta zaiola, hutsik dumatzen ditut kaleak”

aiapatuko nuke, herria hilda dagoela iruditzen zait, bizitza falta zaiola, hutsik sumatzen dituk kaleak bai guez baita egunez ere, baina tira agian nire paranoiak izango dira.

Baina tira!

Zerbait positiboa

idatzi beharko banu Txaparen 20. urteurrenako ospakizunetara gonbidatuko nuke jendea, datorren astean irratian egingo diren irratsaio bereziak entzutera, azaroaren 19an eta 20an Gaztetxean egingo diren kontzertuak ikustera, larunbatean egingo dugun bazkarira... 20 urteetan zehar Txapak herriko hainbat jende lotu izan du uhinen bitartez, polita izango da guztiok mahai berean jarrita ikustea!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziabar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zehatzak



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

BIZILAGUNEN KEXAK/ Ibargaraiko bizilagunek geltokia handik kentzeko eskatu dute azken bi urteotan, autobusen zarata eta zikinengatik

Behin-behineko autobus geltokia Torrekuan kokatuko dute hamabost egun barru

EDU MENDIBIL

Behin-behineko autobus geltokia Torrekuan abian izango da hamabost bat egun barru. Geltokia lekuz aldatzeko arrazoi nagusia Udalak Ibargaraiko bizilagunengandik azken bi urteotan jasotako kexak izan dira.

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako langileak Torrekuan autobus geltokia kokatzeko lanetan dira egunotan. Juanjo Arrieta Gobernazio batzorde buruaren arabera, hamabost egun barru, autobus geltokia martxan egotea nahi dute.

Autobusendako seinaleak margotu dituzte eta bidaiariak eraman edo jasotzera joango diren autoendako lekua ere izango da Torrekuako geltokian. Udalak eskatu ditu dagoeneko lau markesina bertan jartzeko, baina haiek heldu bitartean aurrez egindako jarriko dituzte. Era berean, komunak izango dira geltokian.

IBARGARAIKO BIZILAGUNEN KEXAK

Ibargaraiko geltokiaren pareko bizilagunen kexak jaso ditu Udalak azken bi urteotan, han geltokia jarri zutenetik. Hori izan da geltokia lekuz aldatzeko arrazoi nagusia. Bizilagunen arabera, zarataz gain, kea eta zikinak sortzen zituzten autobusek eta egoera jasangaitza zen.



Torrekuan autobus geltokia kokatzeko lanetan dira Obra eta Zerbitzuetako langileak.

Torrekuan jarriko den geltokia behin-behinekoa izango da, tranbiaren ibilbideak inguruan zubi bat izango du-eta. Behin betiko geltokia Ibargarain egingo diren etxe berrietan kokatzea aurreikusten zen, baina orain

izan den arazoa errepikatzen arriskua dagoenez, baliteke oraingo kokalekua definitiboa izatea. Hala adierazi digu Juanjo Arrieta udaleko zinegotziak, oraindik gaiaren gainean ezer erabakita ez dagoen arren.

ARRIZURI, NORABIDE BAKARREKOA

Bestalde, Torrekuan galdutako aparkalekuak nolabait erreku-peratzeko Arrizuri norabide bakarrekoa izango da, behetik gorako helbidean hain zuzen, eta bi aldeetan aparkatu ahal ziango

da. Toki-Eder aldetik datozen Bidekurutzetatik behera egin beharko dute Ibargarai aldera.

Bestalde, Udaleko langileak kiroldegia atzealdean aparkalekuak jartzeko lanetan dihardute baita.

Batzokiaren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak gaurtik

E.M.

Bergarako Batzokiaren lehen mendeurrena ospatzeko ekitaldiak hasiko dira gaur, egubakoitzan. *Euskal kirol selekzioa: futbolaren kasua* izenburuko mahai-ingurua izango da Miguel Altunako aretoan, 18:30ean. Javier Clemente entrenatzaileak, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek eta Iñaki De Mujika kazetariak hartuko dute parte.

Azaroaren 26an, *Mendeurren baten gogoetak* izenburuko hitzaldia egingo du Iñaki Anasagastik. Abenduaren 16an, berriz, Jose Manuel Castellsek eta Xabier Ezeizabarrenek *Estatutuko politiko berriaren bideragarritasuna* izango dute aztergai.

BIKUÑAREN LIBURUA

Ospakizunen barruan, Batzokiaren historia biltzen duen liburua



Javier Clemente hizlari izango da gaur Miguel Altunako aretoan.

idatzi du Juan Luis Bikuña kazetariak. *Bergarako Batzokia: 100 urte* izenburuko liburua abenduaren 2an aurkeztuko dute. Besteak beste, Xabier Arzalluz EBB-

ko presidente ohia etorriko da egun horretan.

Bergarako Batzokia 1904ko abenduaren 12an inauguratu zuten.

LABUR

Erretiratuek Lizarra eta Los Arcosera irteera egingo dute azaroaren 24an

San Joxepe erretiratuen elkarteak azaroaren 24an Lizarra eta Los Arcosera joateko irteera antolatu du. Goizetik upategi bat ikusterako joango dira Los Arcosera eta bazkaria, berriz, Lizarran egingo dute. Irteera 08:00etan egingo dute. Izena emateko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik. Argibideak 943 76 30 09 zenbakian.

Odol ateratzea egingo dute eguaztanean, hilaren 17an, Seminarioko lokalean

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak dei egiten du eguaztanean, hilaren 17an, Seminarioan egingo duten odol ateratzean parte hartzeko. Ohikoa den moduan, 18:30ean hasiko da odol ateratzea.

Hemendik urte bukaera bitartean azken aurreko odol ateratzea izango da. Azkena abenduaren 1ean izango da.

Taloak egiten ikasteko aukera hurrengo egubakoitzean Bergaran, Jardunen eskutik

Jardun elkarteak taloak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Arrasateko Ekin Emakumeen Elkarteak kideek emango dute ikastaroa hurrengo egubakoitzean, hilaren 19an, Arrizuriaga jauregian, 17:00etatik 20:00etara. Jarduneko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek zortzi.

Izenematea Jardunek Errotalde jauregian duen bulegoan egin daiteke. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.



ARTXIBOA.

Txapa Irratia hasi zela 20 urte betetzen dira egunotan. Gaur egun 60 lagun inguru ibiltzen dira irratiaren parte hartzen.

KULTURA/ Hurrengo zapatuan bazkaria, musika emanaldiak eta antzerkia gaztetxean

20. urteurrena ospatzeko programazio berezia Txapan

E.M.

Txapa Irratia bere 20. urteurrena ospatzen hasiko da astelehenean. FM 97.25 frekuentzian programazio berezia eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte datozen egunotarako.

Txapa hasi zela 20 urte beteko dira azaroaren 20an. Hala ere, astelehenean hasiko dira ospakizunak. Horrela, irratiaren historiako tertulia izango da asteleheneko irratsaio berezian, 22:00etan. Ordu horretan izango dira datozen asteko programa bereziak: martitzenean, Arrosa proiektua-

ren gaineko xehetasunak emanango dituzte, eguaztenean Euskal Herriko irrati libreen ibilbideari gain begirada emango diote eta eguenean, berriz, Txapa Irratiako sortzaileekin tertulia izango da. Aurretik, eguenean, diapositiba emanaldia egingo dute gaztetxean, 19:00etan. Era berean, eguenero, irratsaio zaharrak entzuteko aukera izango da FM 97.25ean.

KONTZERTUA, BAZKARIA, ANTZERKIA...

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 19an, Inoren Ero Ni taldearen kontzertua izango da gaztetxean. Bap taldearen aritutako Ene-

ko, Mikel eta Drakek jotzen du Andoaingo talde honetan.

Hurrengo zapatuan 20. urteurrena ospatzeko bazkaria antolatu dute gaztetxean. Txartelak honez gero salgai daude Arranon eta Pol-Polen. Egun horretan, 17:00etan hasita, irrati maratoia izango da, zuzeneko emanaldiekin, 18:30ean Mai Gorostiagaren *Mai en klowncierto* antzezlan eta 19:30ean hainbat talderekin kontzertua izango da.

Txapak 27 irratsaioekin hasi du denboraldia. Guztira, 60 lagun inguru dabilta programazioan parte hartzen eta nahi duten guztiek kolaboratu dezakete.

Masterreka kalea bi hilabetez itxita izango da

E.M.


Ur zikinen kolektoreko lanak direla eta, Masterreka kalean zirkulazioa eten egingo dute. Udaltzaingoak aditzera eman duenez, baliteke astelehenean (hilak 15) itxita egotea Masterreka. Hasiera baten bi hilabetez itxiko dute.

Horren ondorioz, Infernukua taberna zegoen lekutik Barrenkalera doan tartea itxiko dute eta han garajeak dituzteneak bakarrik izango dute autoarekin ibiltzeko aukera. San Pedro kaleetik Artekalera eta handik Barrenkalera bideratuko dute zirkulazioa. Bolutik behera datorren jen-

deak San Martin plazara jo beharko du derrigor.

IBARGARAI, OTSAILERA ARTE ITXITA

Era berean, Miguel Atuna institutuaren paretik aparkaleku publikoraino doan tartea itxi zuten astelehenean, Ibargarai kalean. Gidariak saihesbideko Amillagako sarreratik edo Artekaletik heldu ahal izango dira herri barrura. Herrigunetik irteko Zurradero zabalik dago. Ibargaraiiko palmondotik Miguel Altuna institutuaren pareko tartea aparkatzeko aukera izango da. Otsailera arte itxita izango da Ibargarai.



Gazteak, drogak eta euskararen presentzia

Gaur egungo Euskal Autonomi Erkidegoko gazteak eta droga kontsumoak jardunaldien barruan, bi hitzaldi izango dira hurrengo astean: hilaren 16an drogen prebentzioaren gainekoa eta 18an, kontsumoa ematen denean arriskuak gutxitzeko klabeak aztertuko ditu Txabi Ruizek. Bi hitzaldiak, kultura etxean, 18:30ean. EHEK enkartelada egin zuen lehenbiziko hitzaldian, martitzenean, hitzaldi guztiak gaztelekar direla eta protesta egiteko. Udalak bultzatutako Euskara Biziberritzeko Plana zertarako den galdetzen zuten EHEko kideek.

Martinez de Iralaren jaioterria ezagutzera

E.M.

Paraguaytik etorritako Roberto Quevedo eta Ramon Irala iruindarra bisitari izan genituen asteazkenean. Quevedo Paraguayko Historia Akademiako presidentea da; Washington Ashwell presidentea ere Bergarara etortzekoa zen, baina osasun arazoak medio Paraguayra bueltatu behar izan zen martitzenean, Madrilera zegoela. Kongresu batera Madrilera etorri eta Martinez de Iralaren jaioterria bisitatzea zen bere asmoa. Ramon Iralak, berriz, Martinez de Irala bergararraren figura ikertu du.

BOSGARREN MENDEURRENA

2006an 500 urte beteko dira Domingo Martinez de Irala jaiotzeko. Urte horretan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Paraguayan. Izan ere, Irala Paraguayko lehen gobernadorea eta Asuncion hiriko sortzailea izan zen.

Victoriano Gallastegi alkateak harrera egin zien bisitariari eguaztenean. Antzuolako Irala Torre baserrian (Irala abizenaren uestezko jatorria) izan ziren eta Bergara ezagutzeko bisita egin zuten, Miguel Angel Elkoroberezibarren laguntzaz. Elkoroberezibar Iralari buruzko ikerketa bap prestatzen ari da.



Miguel Angel Elkoroberezibar, Roberto Quevedo eta Ramon Irala Martinez de Iralari eskainitako monolitoaren aurrean.

E.M.

MENDEURRENA/ Bergaran, Monzonen inguruko mahai-ingurua izango da egubakoitzean, hilaren 19an, Olaso Dorrean

Telesforo Monzonen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak aurkeztu dituzte

E.M.

Telesforo Monzonen jaiotzaren 100. Urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiak aurkeztu zituzten eguaztenean Bergaran, prentsa aurrean. Monzon gogoratzeko mahai-inguruak eta hitzaldiak izango dira martitzenetik aurrera.

Udaletxean egindako prentsaurrekoan Victoriano Gallastegi alkatea, Pierre Aintziart Euskaltzaleen Biltzarreko presidentea, Gillermo Etxeberria Egan literatur aldizkariko zuzendaria eta Jose Luis Elkoro eta Ramon Mendibil Dorre Olasoko Sorrerakundeko kideak izan ziren.

BERGARAN, HURRENGO EGUBAKOITZEAN

Hilaren 17an eta 18an bi hitzaldi izango dira Donostian, Dr. Camino liburutegian, 20:00etan. Lehenbizikoan Monzonen poesigintzaren gainean jardungo du Koldo Izagirrek eta bigarrenean Xabier Mendigurenek omendutakoaren artikulugintza aztertuko du.

Hurrengo egubakoitzean, berriz, Olaso Dorrean mahai-



Argazkian, Mendibil, Elkoro, Gallastegi, Etxeberria eta Aintziart eguazteneko prentsaurrekoan.

EDU MENDIBIL

ingurua egingo da, 19:00etan. Juan Ignacio de Uriak, Piarres Xarritonek, Joxe Mari Urkiak eta Victoriano Gallastegik dute parte eta moderatzailea Jose Luis Elkoro izango da.

Elkoro Dorre Olasoko Sorrerakundeko presidentea da eta Monzonen etxean diren kultur ondasunak herrira zabaltzeko garrantzia azpimarratu zuen eguaztenean. Zentzu horretan,

udalak eta fundazioak elkarlanean jarraituko dutela baieztatu zuen alkateak. Monzon gogora ekartzean, herrian oso pertsona maitatua eta kulturalki gizon berezia zela esan zuen alkateak.

LABUR

Mikel Zengotita, argazki rallyko irabazlea

Urriaren 17an jokaturako argazki rallyko irabazlea Mikel Zengotita azkoitiarra Hala erabaki zuen epaimahaiak martitzenean, azaroaren 9an.

Bigarren saria Roberto Madariaga zaldibartarrak irabazi du eta hirugarrena Santos Vega ermuarrak. Herriko onena Agustin Gurrutxaga izan da eta gazteen saria Andoni Conde bergararrari ematea erabaki zuen epaimahaiak.

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta, manifestazioa 17an

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta, Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatzeko manifestazioa izango da eguaztenean, hilaren 17an, Bergaran, 12:00etan. *Guk hemen orain Bergaran historia idatziko dugu* leloa izango du manifestazioak. Azaroaren 20an Villabonan ospatuko den Ikasleen Eguna joateko autobusak antolatu dituzte. Izenematea, Arranon.



Aro berria, erakusketa berria.


FAGOR

jakina

BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

MINGAINARITIRAKA



Lorea
Zurutuza

JARDUN EUSKARA ELKARTEKOA

Haur Hezkuntzako ikasketak egin zituen Loreak eta Jardunen dihardu lanean gaur egun; arratsaldetan egoten da Jardunen, baina, goizetan, Aulestiko Haur Eskolako irakaslea da. Horrela, bere txikitako ametsa bete du Loreak.

Zein da zure lana Jardunen?

Haur eta Gazte Saileko arduraduna naiz, eta sail horretako proiektuak aurrera ateratzea da nire eginbeharra.

Aisialdian, zer nahi dute umeez eta gaztetxoek?

Denetik; tailerrak, jolasak... denetik gustatzen zaie; dena dela, gehien gustatzen zaiena da kalean jolastea, *Altxorren bila* bezalako jolasak asko gustatzen zaizkie.

Eta zuk zeuk?

Denbora librean lagunekin egotea gustatzen zait, gehienbat; orain dela gutxira arte, begirale ibili izan naiz Jardunen eta hori ere oso gustuko nuen.

Zela eman diezaiokegu bultzada bat euskarari?

Norberak erabiltzea da lehenengo urratsa, hortik hasi beharko genuke guztiok. Gero, euskararen inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzea ere garrantzitsua da.

Zenbat ume eta gaztetxok dihardute aisialdi taldetan?

Guztira, 140 bat neska-mutikok eta 8 begiralek dihardute.

Zure lanean zer da gehien gustatzen zaizuna?

Laneko giroa eta jende asko ezagutzeko aukera ematen didala.

Eta gutxien?

Batzutan, asteburutan lan egitea tokatzen zaidala.

Loterian nahi adina diru tokatuz gero, zer egingo zenuke?

Sekula ez dut horretan pentsatu, ez dut eta jokutzen. Dena dela, bidaiatzeko erabiliko nuke dirua.

Bergarak zer falta du?

Gazteak elkartzeko ekintza gehiago, giroa sortzeko zerbait; igerilekuak, aparkalekuak eta talde eta elkarte guztiendako lokalak ere falta ditugu herrian.

Eta Bergarako gauza onena?

Bergararok jende jatorra garela.

Txikitak zer izan nahi zenuen?

Irakaslea, eta horixe naiz gaur egun.

Bukatzeko, amets bat?

Momentuz, oso gustura nago nagoen bezala; hortaz, orain arte bezala jarraitzearekin konformatuko nintzateke.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Silvia Igartua

ISLANDIA / 2004ko abuztuan

Astebeteko oporraldia besterik ez zuten arren, Islandiara joan ziren abuztuan Silvia eta Andoni. Silviak, batez ere, aspalditik zeukan Islandia ezagutzeko gogoia; "hango paisaia ezberdinengatik, esaterako, asko erakartzen ninduen Islandiak".

Irla txikia da Islandia, gutxi gorabehera, Andaluziaren tamaina izango du. "Paisaien arteko kontrastea harrigarria da", azaldu digu Silviak; "posible da errepidearen alde bat zeharo berdea izatea eta beste alde, berriz, guztiz bolkanikoa".

Irlaren hegoaldea ezagutu zuten Silviak eta Andonik. Lehendabiziko egunean Laku Urdinean egon ziren: "ur bero-berotan bainua hartu genuen eta lokatzarekin gorputza igurtzi genuen; saunak, dutxa hotzak... denetik zegoen, eta benetan polita eta erlaxagarria zen toki hori", gogoratzen du Silviak. Automobila errentan hartu zuten eta hara eta hona ibili ziren aste-betean.

Reykjavik hiriburuak 180.000 biztanle inguru ditu; badaude beste bi herri 15.000 biztanle ingurukoak. "Hiru horiek alde batera lagata, gainerako herri guztiak oso txikiak dira, gehienak, 100-200 biztanle ingurukoak", azaldu digute Silviak eta Andonik.



"Bidaia oso gomendagarria izan da, eta berriro itzultzeko gogoarekin geratu gara"

"Herri gehienak oso txikiak dira, 100-200 biztanle ingurukoak; hiru hiri bakarrik daude"

Iritsi eta hurrengo egunean Snaefellnes penintsulara abiatu ziren; hementxe inspiratu izen Julio Verne *Viaje al centro de la Tierra* idazteko.

Handik, Geysir eskualdera joan ziren; lur barrutik indarrez irteten den ur beroari deitzeko erabiltzen dugun *geyser* hitza eskualde horretatik dator, han horrelako asko dago eta. *Geysirrez* gain, Gullfoss ur-jauziak ere ikusi zituzten eskualde horretan. Handik hegoaldera jarraitu eta Skogafoss herrira joan ziren; Islandiako ur-jauzi handienetakoa ikusi zuten hantxe. Hegoaldera jarraituta, Vik herrira iritsi ziren, kostaldean. Kirkiu izan zen euren hurrengo geldialdia; herri horretatik, Jokulsarlon lakura egin zuten irteera bat; Vatnajokull glaziarra dago laku horren atzeko aldean, Europako glaziarrik handiena, hain zuzen ere. Svartifoss ur-jauziak ere ikusi zituzten eta Skatafell parke nazionalan ere ibili ziren.


Bidaia bukatzeko, Reykjavik hiriburura joan ziren azkeneko egunean.

"Bidaia oso gomendagarria da, eta itzultzeko gogoarekin geratu gara", azaldu digute; "hori bai, hango bizimodua oso garestia da guretako".

AINZANE IRIZAR



Silvia eta Andoni Jokulsarlon lakuan, atzean Vatnajokull glaziarra dutela.



Jolas
Zure Opari Berrina



Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA
(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

lbargarai 44 BERGARA
(t) 943 76 73 43

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA

FUTBOLA

Lehen mailako gazte taldea Segura izango du bisitari Ipintzan

Bergararak sailkapeneko bigarren postuan dira eta ez dute partidurik galdu orain arte

EDU MENDIBIL

Bergara KEko lehen mailako gazte taldeak Segura izango du bisitari bihar, zapatua, Ipintzan, 18:00etan. Bergararrak ez dute oraindik partidurik galdu eta bigarren postuan dira sailkapenean. Igoera lortzea da helburua.

David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainek zuzendutako taldeak sendo dihardu ligan. Jokātutako bederatzi partiduetatik, zazpi irabazi eta bi berdindu dituzte bergararrak. Azken jardunaldian Zestoan irabazi zuten, 2-3. Iker Orgaz, Ibon Leibar eta Ander Macho izan ziren golegileak.

Sasoi bolada onari eustea da etxekoen asmoa biharko partiduari begira. Esan bezala, sailkapeneko bigarren postuan daude, Aretxabaleta liderraren atzetik. Hurrengo partidua etxean, hain zuzen, beraien aurka jokatuko dute. Ohorezko gazte mailara igotzea da Bergararen helburua. Duela bi denboraldi maila horretan aritu zen Bergara.

BESTE HIRU PARTIDU

Zapatuan beste hiru partidurik jokatuko dira Ipintzan. Eguer-



Lehen mailako gazte taldeak zazpi partidurik irabazi eta beste bi berdindu ditu orain arte.

dian, senior mailako nesken taldeak Mondragon taldearen aurkako derbia izango du, 12:00etan. Arratsaldean, berriz, bi partidurik izango dira ordu berean, 16:00etan: alde batetik infantil

mailako futbol-8ko taldeak Arizmendiren aurka jokatuko du. Aurreko astean gaztetxoek 5-1 galdu zuten Antzuolan. Ibon Leibar, Ibai Igartza eta Beñat Labaien dira taldeko entrena-

tzaileak. Bestalde, nesken futbol-8ko taldeak Eibartarrak taldea hartuko du. Mikel Fernandezek taldeak 0-4ko emaitzarekin irabazi zuen azken jardunaldian, Eibarren, Urkiren aurka.

FOTOKIROLA



Shotokanekoak, Euskadiko Txapelketara

Shotokan karate taldeko Markel Larrañaga, Jon Gonzalez, Unai Zabarte, Miren Laskurain eta Rakel Blancok azaroaren 27an Euskadiko Txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuten domekan, Lasarten. Junior mailan, Jon, Unai eta Miren lehenak izan ziren euren pisuetan eta Rakel eta Markel bigarren postua eskuratu zuten Gipuzkoako Txapelketan. /E.M.

Senior eta kadete mailako eskubaloitza taldeen partidurak

E.M.

Bergara KEko kadete eta senior mailako mutilen taldeek etxeko partidurak izango dituzte aste bukaeran. Nagusiek Romo izango dute bisitari eta gaztetxoek Egiaren aurka jokatuko dute.

Bigarren urtez, Xabier Lijo dugu kadete mailako mutilen taldeko entrenatzailea. Orain arte jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi eta bakarra galdu dute. Domekan Aloña Mendiri irabazi zioten Bergaran, 29-21. Esan bezala, aste bukaera honetan ere Labegarietan jokatuko dute, domekan, Egiaren aurka, 12:15ean.

Gipuzkoako Ligan 11 talde dira lehen eta bergararren asmoa txapeldun izateko borrokan egotea da. Lijoren arabera, Usurbil, Hondarribia eta Aloña Mendiri izango dira beraien arerio zuzenak liga eskuratzeko. Bergararak Usurbilen kontra galdu zuen orain arte galdutako partidurak



Argazkian, kadete mailako mutilen taldea.

bakarra. Urolari (25-40) eta Aloña Mendiri erraz nagusitu zitzaion Bergarako taldea.

SENIOR MAILAKO TALDEA, ZAPATUAN

Bestalde, lehen senior mailako taldeak Romoren bisita izango du zapatuan kiroldegian, 17:30ean. Lander Juaristiren mutilek lehen

IGERIKETA

Gutxituei zuzendutako igeriketa egokitua

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da. Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldean. Argibideak: 943 77 91 67.

IKASTAROA

Uretako sorosle ikastaroa Elgoibarren urtarrietik aurrera

Deba bailarako kirol zerbitzuek antolatuta, uretako sorosle ikastaroa izango da Elgoibarren, urtarrietik 10etik otsailaren 26ra.

Izenematea Elgoibarreko Olaizaga kiroldegian, 943 74 44 15 telefono zenbakian egin daiteke.

IKASTAROA

Pultsometroaren erabilerean gainera ikastaroa

Pultsometroaren erabilerean gainera jardunaldiak antolatu dituzte Eibarren, azaroaren 26an eta abenduaren 3an. Xabier Leibar, Jon Iriberrri eta Julen Erauzkin izango dira irakasleak.

Argibideak kirol zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

MOTORRA

Gurutz Linazisoro auto gidaria, 12. postuan Euskadiko Carcross Txapelketan

Bango Car CBR 600 autoa gidatuz, txapelketako bost karreratan hartu du parte; azkenekoan, Mendiolan, laugarrena izan zen

EDU MENDIBIL

Gurutz Linazisoro bergararrak 12. postuan amaitu du Euskadiko Carcross Txapelketa. Orain arte motorreko probetan ibili bada ere, aurten autoarekin probatu nahi zuen Gurutzek, eta gauzak ondo aterata zaizkio.

Txapelketako bost karreratan izan da Gurutz eta azkenekoan lortu zuen emaitzarik onena: Mendiolan laugarren sailkatu zen, urriaren 17an. Besteak beste, Toni Piña Espainiako txapeldunak eta Gustavo Taberna Euskadikoak hartu zuten parte Mendiolan.


ZARTADAK ETA IRAULIAK

Bango Car CBR 600 autoa dauka Gurutzek. Orain arte motorrean ibili izan da, Euskadiko Enduro Txapelketan eta trialeko probetan: "Motorrean ibiltzeko sasoi betean egon behar duzu, oso gogorra

da. Aldatzeko, zerbait berria egiteko gogoz nengoen eta Interneten hasi nintzen autoak ikusten. Nahiko merke lortu nuen autoa eta ondoren probatzen hasi nintzen, Mendiolako zirkuituan. Ikusten nuen denbora nahiko onak lortzen nituela, eta Euskadiko Txapelketan parte hartzera animatu nintzen. Esperientzia ederra izan da, oso gustura ibili naiz".

Mendiolan eta Mirandan jokatuak probetan bakarrik izan da Gurutz: "Mirandakoa oso zirkuitu bizkorra da, disfrutatzeakoa.

Mendiolakoak, aldiz, asfalto eta lurra tartekatzen ditu, eta hobe da han asfaltoko estalkiekin ibili, bihurguneak asfaltozkoak direlako. Nik lurrean ibiltzeko estalkiak dauzkat, takodunak, eta han arazo gehiago izaten ditut...". Karreretan, hamabost bat auto izaten dira lehian tanda bakoitzean, eta denbora onenak lortzen dituztenak sailkatzen dira finalerako. Autoak blindatuta daude, zartadak eta irauliak oso ohikoak direlako. Autoen potentziak, pisuak, autoen esekidurak, estalkiek eta gidariaren abileziak ere zerikusia dute. Gurutzen autoa ez da indartsuena, 110 zaldi eta 300 kilo inguruko pisua ditu-eta.



Irudian, Gurutz Linazisoro, Carcrosseko karrera batean.

ARTIBOIA

"Lehen aldiz ibili naiz auto karreretan, eta esperientzia ederra izan da"

DOMEKAN, ZAMUDION

Aholkulari eta mekanikari lanean laguntzaile izan dituen Gorka Arrizabalaga, Iñaki Saez de Maturana eta Aitor Sanchez laneko lagunei eskerrak eman nahi

dizkie Gurutzek. Ez da merkea horrelako probetan parte hartzea, autoak erraz puskatzen direlako. Lana amaitutakoan, ordustrak egin behar izaten ditu, autoa konpontzen. Hurrengo den-

boraldirako babesleren bat izatea lortu nahi luke Gurutzek. Bien bitartean, Euskadiko Txapelketa bukatuta, domekan, hilaren 14an, Zamudioko eslalomean hartuko du parte.

Bigarren eskuko mendi eta eski materiala jasotzen dihardute Pol-Polen

E.M.

Azaroaren 18ra arte bigarren eskuko eski eta mendi materiala jasoko dute Pol-Polen. Eski eta mendi materialaren azoka txikia azaroaren 22tik 27ra bitartean irekiko dute Pol-Poleko egoitzan.

Beraz, materiala salgai jarri dutenek Pol-Polera eraman beharko dute azaroaren 18a baino lehen. Besteak beste, botak, granpoiak, pioletak, eskiak, txamarrak, iltzak, mosketoiak eta horrelakoak jarri dituzte salgai azken urteotan, sasoi honetan. Hastear dagoen eski denboraldiari begira aukera ona eskaintzen du azoka txi-

kiak. Astelehenetik eguenera 19:00etatik 20:30era bitartean jasoko dute materiala. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan jaso daitezke.

BETERANOEN IRTEERA HILAREN 21EAN
Pol-Pol Mendizale Taldeko eta Gorla Alpinoko beteranoek azaroaren 21ean Lizarragara eta

Urdiainera joateko irteera antolatuta dute. Egun guztirako irteera izango da eta herriko mendizale guztiei parte hartzeko gonbidapena egin diete.

Irteera 08:00etan egingo dute, autobus geltokitik. Txartelak salgai daude Pol-Polen, ohiko ordutegian. Bazkariko txartelek 40 euro balio dute.

FUTBITO TXAPELKETA

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Pirulotarrak-Egurre. Brescia
11:30: De Resaka-Brescia. Belengua
12:30: Belengua-Fac. De Resaka
17:00: Arrano-Cosa Nostra. Ganbara

ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Arrano-Cosa Nostra. Ganbara

DOMEKAN, BARRUAN


09:30: All Blacks-Txipiron. Agirrebeña
10:30: Irubide-Agirrebeña. All Blacks
16:00: Ganbara-Belengua. Errotagain
17:00: Bayer-Errotagain. A Ze Flaxa
18:00: Pagomendi-A Ze Flaxa. Niu Tim
19:00: K. Piperrak-Niu Tim. KMP
20:00: KMP-Canalejas. K. Piperrak

Bergarako batzokiaren mendeurreneko ekitaldiak 1904-2004

- Azaroak 12, Ostirala; Mahai ingurua: "Euskal Kirol Selektzioak: Futbola". Hizlariak: Juan Luis Larrea, Javier Clemente, Iñaki de Mujika.
- Azaroak 26, Ostirala; Hitzaldia: "Mendeurren baten inguruko gogoetak". Hizlaria: Iñaki Anasagasti.

- Abenduak 2, Osteguna; Aurkezpena. Juan Luis Bikuñak idatzitako "Bergarako batzokia: 100 urte" liburuaren aurkezpena. Hizlaria: Xabier Arzallus.
- Abenduak 16, Osteguna; Hitzaldia: "Estatutu politiko berriaren bideragarritasuna". Hizlariak: Jose Manuel Castells eta Xabier Ezeizabarrena.

Ordua: 19:30 • Tokia: Miguel Altuna institutuan.




Begarako Batzokia
San Pedro 4 • tel.: 943 76 47 00

ARREGI AROZTEGIA




PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.

HORMA ARMAIRUAK



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiانا eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

GREMIOEN GIDA zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teillatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atreak





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 41. alia

IEPA LAGUNOK!

Zer moduz zabizte ba? Ni behintzat oso pozik nago, zuetako askok gure lehiaketan parte hartzen dozuelako. Segi horrela! Ia aste honetako alia zuen gustukua dan! Hurrengo astera arte!



URREZKO ARAUAK

- Amak seietarako etxera juateko esan dostelako.
- Lehiaketan parte hartu dozuelako.



- ~~Porke amak seietarako etxera juateko esan dost.~~
- ~~Ya ke lehiaketan parte hartzen dozuen.~~



IGARKIZUNAK

- Ez naiz ezer eta badut izenik, beti nabil zurekin nahiz izan argala edo gizona.
- Goizero dator hutsik egin barik egun osua berarekin gare, atsaldero esaten dosku: "agur eta bihar arte"
- Txaleko zuriz eta frak beltzez jantzitta, hegan egitten ez daben itsasoko hegaztixa.



ERANTZUNAK:
Kerizpia, Eguzkia, Pinguina

IRABAZLIA

• Juan zan asteko lehiaketako erantzun zuzenak:

- | | |
|------|------|
| 1. D | 4. E |
| 2. A | 5. G |
| 3. F | 6. B |



Ainhoa Sainz
Santiago
9 URTE
ARANZADI IKASTOLA

ESAERA ZAHARRAK LOTZIA

- | | |
|-----------------------------|-------------------------------|
| - Harrixak... | - ...gabeko iturri. |
| - Goizeko laiño gorrixak... | - ...erdixa ustel. |
| - Urriñeko eltzia urrez... | - ...ez dagoenian egon! |
| - Ustiak... | - ...orduak labur. |
| - Dagoenian bon-bon... | - ...ez dauka begirik. |
| - Adiskide onekin... | - ...gerturatu orduko lurrez. |

TXISTIA

Ume batzuk kristau-ikasbidia ikasten ziharduten. Abadiak galdetu zotsen:

- Zeiñek jua nahi dau zerura? Danak altxau zebeu besua, "nik... nik... nik..." esanaz. Baiña mutiko batek bururik ez zebala altxau konturatu zan abadia eta galdetu zotsan.
- Zuk zergaittik ez dozu zerura jua nahi?
- Amak seietarako etxera juateko esan dostelako.- erantzun zotsan mutikuak.



ELKARRIZKETA

ZIGOR MARTINEZ/BIG BAND-AREN ZUZENDARIA

“Jazza gustuko dutenei ezagunak egingo zaizkie kontzertuan joko ditugun kantuak”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan. Zigor Martinez bergararra da talde horren zuzendaria, eta hark azaldu dizkigu Big-Banden eta emanaldiaren nondik norakoak.

Noiz eta nola sortu zen Arrasate Musikaleko Big Band-a?

Arrasate Musikalen jazz-a oso gustuko zuen gizon batek sortu zuen Big Band-a. Hura gero musika bandara pasatu zen eta beste batek hartu zion lekukoa, eta gauza bera gertatu zen beste harekin, eta nik hartu dut haren lekua.

Zuk noiztik diharduzu zuzendari?

Bi urte daramatzat. Jazzaren inguruko ikasketak eginak ditut, eta animatu egin nintzen. Oraingoz gustura dihardut. Kontzertuei adina garrantzi ematen diet entsegueri, eta emanaldian akatsak egon arren, ahalik eta ondoen gertatzen saiatzen gara.

Zein ezberdintasun daude Big Band-aren eta ohiko musika bandaren artean?

Herri askotan ohikoa den musika bandak daude batetik;

Big Band-ak, berriz, ez dira hiriburuetan ez bada beste toki askotan ikusten. Jazz erako musika egiten duten bandak direla esan daiteke. Big deitzen diote jazz musika egiteko jende asko gaudelako taldean.

Zenbaterik osatzen duzue taldea?

Hogeita bat lagun gara. Bateria, baxu elektrikoa, gitarrak elektrikoa eta pianoa daude. Bestetik, haize-instrumentuak: bost tronpeta, lau tronboi eta sei saxofoi. Bestalde, Amaia Arriaran bergararrak ahotsa jartzen die gure kantu batzuei.

Orain arte emanaldi asko egin duzue?

Gehienak Arrasaten izan dira, baina Gasteizen ere izan ginen orain dela bi urte bertako Big Band-arekin elkartrukea eginda. Aurrerantzean Bergaran egingo

dugu bihar kontzertua, Elgetara joatekoak gara, baita Sorluzera ere. Baliteke Donostiako talde batekin elkartrukea egitea. Elgetakoaren ostean, etenaldia egingo dugu kantatutako piezei dagokienez, eta 30eko eta 40ko hamarkadetakoa musikarekin eta modernoagoekin ere hasiko gara. Hari-instrumentuak ere sartzekotan gara.

Nolako musika egiten duzue?

Jazza gustuko duen jendea izan daude ezagunak egiten zaizkio guk jotzen ditugun kantuak. Entzungarriak diren abestiak, ez jazz gogorra. 40ko hamarkadan dantzaldietako taldeetako jotzen zituztenen antzerako kantuak egiten ditugu, haize-instrumentuendako moldaketekin, noski.


Bergarako kontzertua nolako izango da?

Denetarik joko dugu: jazz, bluesa, funkya, rocka eta latindarra. Erdiak instrumentalak dira eta besteak kantatutakoak.

Nola animatuko zenituzke bergararrak entzutera joateko?

Jendeak ez ditu era honetako bandak ezagutzen, eta luxua da Arrasaten horrelako talde bat edukitzea. Bihar kontzertua entzun dezatela esango nieke, eta gero euren pentsatuko dute hurrengo batean joan edo ez.

“Jendeak ez ditu era honetako bandak ezagutzen, eta luxua da Arrasaten Big Band-a izatea”



Dani Laskurain bergararra, lehen saria Aritzeko margo lehiaketan

Dani Laskurain bergararrak lehen saria irabazi du Aritzeko Nazioarteko Pintura Lehiaketan. Espainiako Estatuko lehiaketarik prestigioetsuenetakoa da Aritzeko. Laskurainek 6.000 euroko saria jasoko du. Titulurik gabeko koadro abstraktua aurkeztu zuen Laskurainek lehiaketara, 165x138 cm neurrikoa. Bilaketa Kultur Taldeak antolatutako lehiaketak 28. edizioa bete du aurtentzen. Ricardo Ugarte, Jesus Maria Isturitzek, Josep Blasco i Canet-ek eta Salvador Gutierrezek osatu dute epaimahaia. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an egingo dute, Aritzeko kultura etxean. /E.M.

KULTURAPILULAK

Urgabe talde bizkaitarrak 'Edan hemendik' diskoa aurkeztuko du bihar gaztetxean

Bihar, zapatua, Urgabe taldearen kontzertua izango da 22:30ean gaztetxean. Talde bizkaitarra *Edan hemendik* izeneko hirugarren lana aurkeztera gerturatuko da Bergarara. Lan hori aurrekoen haritik dator eta baikorra eta alaia da. Dantzarako erritmoak izango dira, beraz, nagusi gaztetxean. Joan nahi dutenek hiru euroren truke erosi ahal izango dute sarrera.

Epica, Vision of Atlantis eta Lullacry taldeen kontzertua zapatuan Jam aretoan

Urriaren amaieran hasi zuen Europako bira Epica Rock talde holarriak. Bira horretan Euskal Herrira ere egingo du bisita, Bergarako Jam aretora, hain zuzen ere. Metal sinfonikoa egiten duen Austriako Vision of Atlantisekin eta Helsinkiko Lullacry metal taldearekin batera jardungo du bihar, zapatua, Epicak. Aretoko ateak 20:00etan zabalduko dituzte eta kontzerturako sarrerak bertan eskuratu ahal izango dira 18 euroren truke.

Josu Okinaren tamaina txikiko margolanak ikusgai Nahikari tabernan azaroan

Nahikari tabernan ipini du ikusgai Josu Okina margolariak natura hilen bilduma. Ikusi ez ezik erosteko aukera ere izango du bertaratzen denak, ia denak salgai baitaude. Tamaina txikiko lanok azaroaren amaierara arte egongo dira. Bien bitartean, Bergarako Batzokian Agirreolearen freskoak berritzen dihardu Okinak, eta datorren urtean bere lanak Oñatin ipintzeko asmoa ere badu.

ELKARRIZKETA

IZARNE LIZASO/EHU-KO PSIKOLOGIA FAKULTATEKO IRAKASLEA

"Bergarako erretiratuak gizarteko alorretan inplikaturata daude"

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Xosepe Erretiratuaren Elkarteak Salgado Alba saria jaso du. San Xosepe EHUKo Psikologia fakultatearekin elkarlanerako hitzarmena du eta bertako irakasle Izarne Lizasok eman digu sariaren eta elkartearen lanaren berri.

Zein sari jaso du San Xosepe Elkarteak?

Espainiako Geriatria eta Gerontologia kongresuan Salgado Alba saria eman diote San Xoseperi. Zientzia sozial eta portuaren arloetan komunikazio onaren saria jaso du elkarteak. San Xosepe iaz lan bat aurkeztu zuen Solidarioak 2003 sarirako eta lan hori bera kongresuan aurkeztu eta saritu egin dute.

Zertan oinarritzen da lan hori?

Erretiratu etxearen birmoldaketa plana aurkezten da bertan. Izan ere, erretiratuaren profila aldatzen ari da eta orain dela hamar urtekoekin alderatzen baditugu ezberdinak dira, eurak eguneratzea eta gizartera egokitzea da plan honen asmoa.

Aldaketa nagusienak zein dira?

Gaur egun jendeak gazte hartzen du erretiroa. Aurki ditzakegu 55 urteko erretiratuak, hau da, 75 urteko adin ofiziala baino lehen erretiratzen direnak. Hauek osasunez ongi daude, konpetentzia maila egokia dute, eta batez ere urte asko dauzkate oraindik bizitzeko. Bizitzaren heren bat pasa dezakete erretiroa hartuta eta hori ez da oporraldi bat. Ondorioz, bizitza proiektu bat antolatu behar dute.


San Xosepe Elkarteak zer egin du birmoldaketa horretan?

Nik unibertsitatea ordezkatzen dudan aldetik, oso positibotzat jotzen dut erretiratuaren elkarrekin batek unibertsitatearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea.

Doktoretzako ikerkuntza egiten dihardut eta hitzarmen honen helburu nagusia ikerkuntza horretan zein beste proiektu batzuetan kolaboratzea izan da. **Nola aukeratu zenuten San Xosepe elkarteak?**

Aurrez harremana genuen Tomasa Zabaletarekin, eta lankidetzat hori formalizatzeko beharra ikusi genuen unibertsitateetik. Bergarako erretiratuaren etxean ekintza ezberdin asko egiten zirela ikusi genuen. Baita ere zuzendaritza batzordea inplikaturata zegoela gizarteko hainbat arlotan. Erretiratuak ekintza askotan parte hartu arren erantzukizuna hartzen dutenak ez dira hainbeste, eta Bergarako kasuan ardurak hartzen dituztenak gehiago dira. **Ikerketa nola egin duzue?**

Elkarrizketen bidez egin genuen. Iazko azaroan 100 lagun hartu genituen bakoitzarekin 40 minutuko elkarrizketa izan genuen. Datu sozio-demografiakoak jasotzeaz gain. Euren egoera emozionala, zein ekintzatan parte hartzen duten, bizitzarekiko zein asebetetze maila daukaten... ere ikertu nahi genuen.



BERRIGARA

"Oso positiboa da erretiratuaren elkarrekin batek unibertsitatearekin lan egitea"

Aurrerantzean San Xosepearekin elkarlanean segituko duzue?

Bai, gure asmoa orain arte bezala jarraitzea da. Ikerketa bakoitzak fase ezberdinak ditu eta nik tesia amaitzen dudanean balo-

ratu beharko genuke zein beste lankidetzat mota egin dezakegun. Izan ere, guretzat oso garrantzitsua da errealitate hurbiltzea. Erretiratuaren profila ezagutzeko eurekin lan egin behar dugu.



Salgado Alba saria San Xosepekoendako

Eguaztenean jaso zuen San Xosepe Erretiratuaren Elkarteak Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen Salgado Alba saria. Honekin, elkarte berritzeko ahalegina saritu nahi izan dute. Ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatearekin eta San Xosepeko presidente Juan Iturralderekin batera izan ziren Ramon Alzate eta Izarne Lizaso Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia fakultateko ordezkariek. Osoko bilkuren aretoan jende ugari elkartu zen.

LABUR

Mizpirualde egoitzaren astean ekintza ugari

Mizpirualde egoitzak hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako. Astelehenean toka eta igelaren jokoa izango dira eta baita musika eskolako soka taldearen emanaldia ere. Martitzenean Fredy magoaren ikuskizuna; eguaztenean briska, mus eta domino txapelketa eta trikiritxa emanaldia; eguenean bingoa, opari zozketa eta txistu kontzertua; egubakoitzean Moises Azpiazu taldeko dantzariak; eta zapatuan meza, bazkaria eta dantzaldia.

Berlina esango diogu oraindik ere, errazago ulertzeko.



Toledo berria. Berlinaren definizioa zabaltu egiten du. Toledo berria. Motor berriak: FSI 150 ZP 6 abiadura eta TDI 105i 140 ZP. DSG aldagailu berriak. DSR Erantzun-Dinamika Sistema. TCS trakzio kontrola eta ESP Egonkortasun Kontrola. Bi zonarako aire-girogailua, 6 aire-zaku...

Toledo berria. Dagoeneko ez dago mugarrik.

Bigarren eskuoetan eta 0 kilometrodunetan aukera zabala
www.autocentroigara.com

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51

seat.es

www.eibarmotor.seat.es



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Ze kaletako etxeak dira hauek?

GALDEDEBALDE

1.

Zein hiriko sortzailea da Domingo Martinez Irala?

- A/ Lima.
- B/ Buenos Aires.
- C/ Asuncion.

2.

Zein da BKEko kadete mailako mutilen taldeko entrenatzailea?


- A/ Josetxo Muniategi.
- B/ Lander Juaristi.
- C/ Xabier Lijó.

3.

Zein da Arrasate Musikaleko Big Band taldeko zuzendaria?

- A/ Alfredo Gonzalez.
- B/ Zigor Martinez.
- C/ Alberto Laskurain.

Gabiria dorreko VIII. jauna eta Ahaide Nagusia Valladoliden jaio zen, 1535ean



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MADDI ALDABALendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maddi! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Pedro. / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


HS xanpua

300 ml

3,75 €

624 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Neska koadrila eskola zaharren aldamenean

Eskola zaharren aldamenean ateratakoa da argazki hau. Gaur egun hutsik dago Patronatu Iturbe eraikina, baina bertan Mendi Museoa egitea aurreikusi dute, eta horretarako proiektua gertatzen dihardute. Eraikina bera Gotzaindegiarena da. Argazkian, atzeko partean, txabola bat ikus daiteke. Garai hartan zelaia besterik ez bazegoen ere orain etxebizitza blokeak eraiki dituzte inguru horretan.

Neska talde honek ez zuen hor ikasten, eraikin hori mutilen eskola baitzen. Neskatilak, berriz, Maalako mojen eskolara joaten ziren.

Hala ere, eskola orduetatik kanpo ateratako erretratua da. Izan ere, neskatilak mantal zuriekin joaten ziren eskolara. Honen azpian, berriz, gona motzak jantzi ohi zituzten erretratuan ikus daitekeen moduan. Garai hartan oraindik nahiko arraroa izaten zen neskak prakekin ikustea. Moda hori geroago etorri zen.

Orain dela 40 urte inguru ateratako argazkia da, eta hemen azaltzen diren neskek lagun koadrila osatzen zuten. Eskolan zein kalean jolasean elkarrekin ibiltzen ziren sarritan.

Hona hemen, ezkerretik eskumara, argazkian agertzen diren neskabilen izenak: Maribel Agirre, Maria Isabel Arantzeta, Maite Zabalondo, Begoña Arozena eta Milagros Royo.

Argazkia: Maria Asun Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko azaroaren 12a / 222. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Onartu dituzte arauak aldatzeko irizpideak

AINZANE IRIZAR

Arau subsidiarioetan Udalak egin nahi dituen aldaketak egiteko prozesuan beste urrats bat eman dute. Aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran, arau aldaketen oinarriak onartu zituen udalbatzarrak. Gainera, aurkeztutako lau iradokizunak ez dituzte onartu.

Arauak aldatzearekin, Udalaren helburua da maristen eraikina zegoen tokian etxebizitzak egitea eta Sagasti auzoko zelaian, berriz, gizarte eta kultura etxea.

Arauak aldatzeko dokumentuaren aurrerapena jendaurrean egon zen eta irailean iradokizunak egiteko aukera izan zuten herritarrek. Gertu Gaek, Zutik-ek, Beheko auzoko bizilagunek eta herritar batek euren iradokizunak aurkeztu zituzten; Udalak ez ditu horiek onartu.

Aurreko egubakoitzeko osoko bilkuran, arau aldaketen oinarri izango diren irizpideak onartu zituzten; iradokizunik onartu ez dutenez, bere horretan jarraitzen dute arauak aldatzeko irizpideek.

Iradokizun batzuek zalantzan jartzen zuten Udalaren proposa-



Sagastin eta maristen eraikina zegoen tokian aldatu nahi dituzte arauak.

menen legaltasuna; horren gainean, zera adierazi digute Udaletik: txosten tekniko eta juridikoek argi lagatzen dutela proposamenok legezkoak direla.

Orain, arauak aldatzeko hasiera bateko dokumentua idatziko dute teknikoek; abenduko osoko bilkuran aztertuko dute dokumentu hori.

Mikel Lopezen argazkia irabazle

AINZANE IRIZAR


Argazki lehiaketako emaitzak jakinarazi dizkigute dagoeneko. Aipatzekoa da aurten inoiz baino argazki gutxiago aurkeztu dituztela lehiaketara; gainera, kontuan hartu behar dugu, aurten lehenengo aldiz Internet bitartez argazki digitalak aurkezteko aukera ere eskaini dutela Udaleko arduradunek.

Hiru mailatan antolatu dute lehiaketa; lehenengo mailan, 14 urtetik beherako mailan, Julian Ramirez de Okarizek irabazi du lehen saria, San Mauri-

cio izeneko argazkiarekin. Epai-mahaikideek aipatu dute gazte-txoen argazkien artean oso maila zegoela, oso argazki politak aurkeztu dituztela.

15 eta 25 urte bitarteko mailan ez dute argazkirik aurkeztu. Hirugarren mailan, berriz, 26 urtetik gorakoenean, Mikel Lopezen jasoko du lehen saria, *Intxaurra* argazkiarengatik.

Argazki digitalen atalean, azkenik, Maite Telleriak irabazi du lehiaketa. Dena dela, epaimahaikideen esanetan, lau argazki bakarrik aurkeztu dira eta ez zegoen oso maila ona.



Mikel Lopezen *Intxaurra* argazkia.

KULTURA

'Barne-barnetik' Antzuolaren gaineko bideoa aurkeztuko dute

AINZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, *Barne-barnetik* izeneko bideoa aurkeztuko dute. Olanan etxean izango da aurkezpen ekitaldia, eguerdiko hamabietan.

Antzuolaren gainekoa da bideo hori; herriaren historia, ondarea, kultura eta ohiturak azaltzen zaizkigu ikus-entzunezko horretan; baita urte oso baten herrian izandako gertaera adierazgarrienak ere. Iazko urtean zehar ibili ziren grabazioak egi-

ten bideo hori osatzeko; herriko jaietan, auzoetan eta hainbat ospakizunetan jardun zuten irudiak hartzen. Udalak ordaindu du ekoizpen lan guztia.

Guztira, 600 bideo kopia egin dituzte; 400 kopia euskaraz eta beste 200 gazteleraz. Datorren astetik aurrera salgai jarriko dituzte nahi duten herritarrek eros dituzten. Udal liburutegian, udaletxean eta Itzar liburu dendan eskuratu ahal izango ditugu bideo horiek, hamabi euroren truke.

HERRIA ETA OSPAKIZUNAK

Herriaren gaineko informazioarekin hasten da *Barne-barnetik* bideoa. Herriaren historia, auzoak, parrokiak, ondarea, biztanleria eta industriaren gaineko erreportajea ikus dezakegu lehen-dabiziko zatian.

Bigarren zatian, berriz, herrian urtero ospatzen diren jai eta ospakizunak ikusteko aukera eskaintzen digu: aratusteak, Kalebarrengo jaiak, San Martziagoak, San Blasak, mairuaren alardea eta abar.

LABUR

Patata tortilla lehiaketa jokatu dute neska-mutikoen bihar, zapatua, elizpean

Urrian atzeratu zuten patata tortilla lehiaketa bihar, zapatua, jokatu dute. Bi taldeetan egingo dute lehiaketa hori; talde batenak eta 6. mailetakoko neska-mutikoen parte hartuko dute, eta besteak DBHko lehen eta bigarren mailetakoen. Lau laguneko taldeek parte hartuko dute eta talde bakoitzari seina euro emango zaizkiete beharrezko osagaiak erosi ahal izateko. Esan bezala, bihar, zapatua, izango da lehiaketa, elizpean, 16:00etan hasita.

Liburutegia itxita egongo da datorren astean, egubakoitzera arte, hilak 19

Datorren astean zehar itxita egongo da Udal Liburutegia; egubakoitzean, hilak 19, zabalduko dute berriz. Horren arrazoia da Euzko Herriko liburutegien sistema nazionalen sartuko dela laistarter Antzuolako liburutegia. Sistema horretan sartzeko, liburutegian dauden liburu guztiei kodeak aldatu behar dizkiete. Lan horietan egiteko, hain justu, itxiko dute.

ELKARRIZKETA

ERLANTZ URTASUN/NABARRALDE ELKARTEKO KIDEA

“Denok gara euskaldunak eta denok gara nafarrak”

Orain dela hiru bat urte sortu zuten Nabarralde, eta ordutik, euskal kulturaren alde dihardu lanean elkarre horrek. Eguenean, hilak 18, 19:30ean, elkartearen aurkezpena egingo du Erlantz Urtasunek, Olanan etxean.

Zer da Nabarralde?

Enpresa egitura du Nabarralde, baina, ez da ohiko enpresa bat, kultura enpresa bat da. Etekinak ez dira banatzen bazkideen artean, etekinak dira kultura ekitaldi gehiago antolatzeko. Kulturaren alde egiten dugu lana, buru-belarri; euskara, euskal kultura, lurraldetasuna... horren guztian gainean lan egiten dugu. Gu ez gara politikan sartzen.

Zein da Nabarralderen ikuspegia?

Guk uste dugu Euskal Herriko hiriburua Iruñea dela. Pentsatzen dugu zentraltasun hori nabarmendu behar dela Nafarroaren inguruan. Azterketa sakona egin dugu, eta historiaren aldetik garbi ikusten dugu gakoa dela Nafarroa. Hortaz, denok gara euskaldunak eta denok gara nafarrak. Kulturaliki, gure herria da

Euskal Herria, eta politikoki, denok gara nafarrak.

Esan diguzu ez zaretela politikan sartzen, baina, zuek defenditzen duzuen horrek badu kutsu politikoa.

Berez, euskararen alde gaudela eta euskaldunak garela esatea politizatzea da. Norberaren nortasuna zerbait politikoa da? Bada, beharbada, bai; zentzu horretan, dena delako politika. Guk badauzkagu UPNko sustatzaileak eta oso harro gaude; baita PSOEkoak, EAJkoak eta Bataunekoak. Hori oso aberasgarria da. Saiatzen gara era integratzailean azaltzen gure lana.

Zelako egitura dauka Nabarralde elkarteak?

Momentu honetan zazpi pertsona ari gara lanean Euskal Herri osoan. Bestalde, 30 bazkide ditugu; bazkideak dira, gutxienez,

6.000 euro jarri dutenak. Bazkide batzarra, administrazio kontseilua, argitalpen batzordea eta abar ditugu. Azkenik, 1.000 sustatzaile baino gehiago ditugu; hauek dira ideien alde, gauzak egitearen alde, hilero 6 euro jartzen dituztenak. Hitzaldiak, erakusketa, formazio ikastaroak, aldizkariak, liburuak... denetik egiten dugu, beti ere, gure kulturaren alde.

Zelakoa izango da egueneko aurkezpena?


Hitzaldiak eta aurkezpenak erakargarriak egiten saiatzen gara, irudiekin, argazkiekin, musikarekin...; inoiz ez da izango zinemara joatea bezalakoa, baina, beno. Jendea oso gustura geratzen da aurkezpenarekin.

Orain arte, zelako erantzuna jaso duzue?

Oso ona; bi urte daramatzagu aurkezpenak egiten eta geroago eta jende gehiagok ezagutzen gaitu Euskal Herrian. Iazko udazkenean 14 kultur ekitaldi eskatu zizkiguten udalek, ikastetxeek, elkarteek...; aurtengo udazkene-rako, berriz, dagoeneko 50 ekitalditik gora eskatu dizkigute.

Webgunea ere baduzue.

Bai, baina, azaroan bertan webgune berria izango dugu:



ARTXIBOA

www.navarra.cn, hain zuzen ere. Oraitxe ari gara hori prestatzen eta frogak egiten. Artikulu orrialde bat izango da gure berri

hori; egunero-egunero gure kulturaren eta herriaren gaineko artikulu berriak argitaratuko ditugu hantxe.

KIROLAK

Infantil mailako futbol talde berria

A.I.
Antzuola Kirol Elkarteak futbol talde berria osatu du, infantil mailakoa, hain justu. Zortzi jokalarik jokatu dute maila horretako partiduetan.

Aurreko astean hasi zuten denboraldia; Estalan jokatu zuten lehenengo partidua Bergararen aurka eta 5 eta 1 irabazi zuten.

Lehenengo fasean, sei taldek jardungo dute elkarren aurka:

Antzuolak, Bergarak, Urkik eta Almeneko hiru taldek.

Jon Ander Castro eta Endika Iturbe izango dira talde berriko entrenatzaileak. Jokalariak, berriz, honakoak: Julian Ramirez de Okariz, Xabi Arantzeta, Ibai Zabalo, Aimar Igarza, Gorka Etxezarreta, Maikel Martin, Jon Iturbe, Ander Iturbe, Aitor Laskurain, Mikel Lizarazu, Imanol Clemente, Hodei Zenitagoia elgetarra eta Josu Irizar bergararra.



A.I.

Aurreko asteburuan hasi zuen denboraldia infantil mailako taldeak.



Hanka-palotan Gaztegunekoak

Aurreko asteburuan, zapatuan, hanka-palo ikastaroa izan zuten Gazteguneko neska-mutikoeak. Zurrategiko plazan elkartu ziren zapatu iluntzean eta ondo baino hobeto pasatu zuten, nahiz eta bat baino gehiago erori zen makiletatik lurrera. Gazteguneko arduradunek eta hainbat gurasok ere han jardun zuten, batzuk hanka-paloe-kin frogak egiten eta beste batzuk neska-mutikoei laguntzen. Gogoratu, bestalde, ping-pong txapelketa aurrera doala. /A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Martxoak 23
16:30: Antzuola-Orioko (Gazteak)

PILOTA
Martxoak 23 (Herriko pala txap.)
09:00etatik eta 16:00etatik aurrera
jokatuko dituzte partiduak Udaberri

EMAITZAK

FUTBOLA
Zumaia B 1 Antzuola 1 (2. erreg.)
Antzuola 2 Urnieta 6 (Kadeteak)

PILOTA
Udaberri Saria
Zurriola-Olalde (eskuz kad.) 7-22

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko azaroaren 12a / 206. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

Astelehenean hasiko da azokarako material bilketa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren abenduaren 10ean egingo dute bigarren eskuko gauzen merkata plazan, arratsaldean. Salgai ipiniko duten materiala jasotzen, ordea, astelehenean hasiko dira Eskolan. Salmentekin eskuratutako dirua Eskola Txikien Jairako izango da.

Bigarren eskuko merkatu honekin hainbat helburu lortu nahi dituzte antolatzaileek. Batetik ekainean egingo den Eskola Txikien jairako dirua biltzea, eta jai horri begira herriaren giroa sortzea herriko taldeen inplikazioa bultzatzuz; bestetik, ikasleak balioetan heztean ikastetxean lantzen ari diren proiektuekin bat eginez.

Azoka abenduaren 10ean izango bada ere, aurrez lan asko dago egiteko; eta lan horietan lagun askok jardungo du.

Irakasleek azokarako materiala jasoko dute azaroaren 15etik 26ra bitartean, eta sailkatu ostean, ikasleek materialari prezioa jarriko diote. Ikasleek eurek antolatuko dituzte egunean bertan azokako postuak eta eurek egingo dituzte saltzaile lanak.



Gabonetako zuhaitzen lehiaketan edozein tamainatako zuhaitzak aurkez daitezke.

ZUHAITZEN LEHIAKETA

Gabonetako opariak erosteko aukera polita izan daiteke azoka. Bestalde, Gabon giroan sartzeko Gabonetako zuhaitzen lehiaketa antolatu du Udalak. Zuhaitzak abenduaren 17an aurkeztu behar dira udaletxean.

Edozein herritarrek egin dezake zuhaitza, paperez, kartoiz, paper pastaz, plastilina edo beste material batekin, ezin izango baita zuhaitz naturala izan. Epaimahaiak sarituko ditu onena, originalena eta material ezberdin gehien erabiltzen dituenak.

KULTURA

Antzerkia eta korua asteburuan Espaloian

I.A.

Asteburuan bi ikuskizun izango dira Espaloian. Gaur, barikua, Ados teatroaren eskutik *Las mujeres de verdad tienen curvas* lana ikusteko aukera egongo da 22:30ean.


Garbi Losadak zuzendutako antzezlanaren gai nagusia lodi izatearen ardura da. Jostundegi batean elkartu eta gizarte hainbat arazo umore giroan landuko dituzte hainbat emakumek.

Zuzendariak eszenatoki erre-alista batean kokatuko ditu ikusleak eta komedian oinarrituz gizartearen salaketa egingo du.

ABESBATZA ZAPATUAN

Bestalde, Sustraien Ahotsa abesbatzak *Amodioa* ikuskizuna aurkeztuko du zapatuan, 22:30ean, Espaloian bertan.

Hainbat kontzertu eman eta beste horrenbeste sari eskuratutako koruak Migel Zeberioaren zuzendaritzapean jardungo du.



Ados teatroa taldeak antzeztuko du *Las mujeres de verdad tienen curvas* lana.

HERRITARREN HITZA / Eduardo Zubiaurre • Enpresaburua

Amerikarren demokrazia

Amerikarrek ospatu berri dituzten hauteskundeak gogoetarako gai interesgarria iruditu zait. Gogoko izan edo ez, amerikarren bizimodua mundu guztirako eredu delako; eta eurek dituzten arazoak gurean ere badirelako.

Harrituta ikusi eta irakurri ditugu hango hauteskundeetako zehaztasunak: 50 estatu eta 300 milioi biztanleko nazioa, erdiak baino ez bozkatzeko eskubidearekin eta batz bestea laurdenak bozkatzen du; ideologikoki ezberdintasun gutxiko hautagaiak, bakoitzak ia 4.000 milioi dolarreko kanpaina egiten eta interes jakinen eta ezagunen

babesle (Bush, energia, armamentu eta korporazio handien alde; Kerry, abokatu, sindikatu eta Soros bezalako pertsona bitxien lagun); komunikabide indartsuenen lerratze politiko argia eta lehia zorrotza...

1776an independentzia lortu ondoren, Washington, Jefferson, Hamilton eta abarrek, hiru milioi nekazari eta hamahiru estatuz osatutako nazio berria demokra-



“Ez diot europarrok gauzak askoz hobeto antolatuko ditugunik”

kontrola (presidentea, senatua, kongresua eta epaitegi gorena). Baina haien garaikide zen

tikoki egituratuko zuen konstituzioa prestatu zuten. Erromatarren garaitik erabili gabeko errepublika aukeratu eta gaur egun ezagunak ditugun bitarteko demokratikoak indarrean jarri zituzten lehenengoz, askatasun indibiduala eta berdintasun legala, botereen arteko banaketa eta

Benjamin Franklinek era guztiz jakintsuan zera aurreikusitako zuen: “Bere akatsak izanda ere, konstituzio hau onartzen dut jendearen ongizatea bermatzeko gobernu orokor baten beharra dugulako. Beste edozein gobernu moten antzera bere egin beharra beteko du, herritarrek hainbeste galbidera eraman ondoren gobernu despotiko batek bakarrik balio izango dien arte”.

Ez dut esaten europarrok gauzak askoz hobeto antolatuko ditugunik 400 milioi biztanle, 25 estatu eta hamaika nazio eta hizkuntzadun Europa Batua eratzeko konstituzio berria abian hasten denean.

LABUR

Salgai ipini dute Goibeko Kultura Elkartearen loteria

Gabonetako loteria txartela ipini dute salgai herriko tabernetan eta dendetan Goibeko Kultura Elkarteak. 01.820 da aurtengo zenbakia eta txartel bakoitzak 5 euro balio du. Horietatik lau ipiniko diru jokoan eta bestea elkartearendako izango da, Goibeko kultura ekitaldiak antolatzen jarraitu ahal izateko. Elgetar batek baino gehiagok gogoan izango du Goibeko Elkartearen loteria txartelak behin baino gehiagotan jaso dituztela sariak.

GARRAIO PUBLIKOA

Hilean 500 bidaiari behar dira autobus zerbitzuari eusteko

Garraio publikoan zeuden gabeziei aurre egiteko autobus zerbitzu gehiago ipini zituzten urriaren hasieran. Hilabeteren ostean, zerbitzuok zenbat erabili diren ikusi dute, eta emaitzarekin pozik dauden arren, bidaiari gehiago behar lirakeela esan dute.

Udalaren eskariz, autobus zerbitzu gehiago ipini zituzten urrian, eta Pesa enpresako datuen arabera hilabete osoan 381 bidaiarik erabili du autobusa.

Eguerdiari Bergararik Elgetarako ibilbidea egiten duen autobusean ibili da jende gehien, 190 bidaiari, hain zuzen ere. Goizean Bergarara doana ere elgetar askok erabili du, 171 lagunek. Hauetatik gehienak ikasleak dira eta bonua daukatena, gainera.

Ordu horietan jende asko ibili bada ere, beste batzuetan oso urria izan da erabilera. Goizerdian Bergararik Elgetara ez da inor joan autobusez hilabete guztian, eta Elgetatik Bergarara ere bost baino ez.



Pesa autobus konpainiak egiten du Elgeta eta Bergara arteko ibilbidea.

Emaitzak ikusita, Udalak ahalgin berezia egingo du herritarrek autobusa erabiltzera animatzeko. Izan ere, zerbitzuoi eutsi

nahi bazaie, hilean 500 bidaiari beharko lirakeke. Bestela, orain jarritakoak desagertzeko arriskua baitago.



Gaztainerre jaia Herri Eskolan

Joan zen barikuan Gaztainerre jaia ospatu zuten Herri Eskolako umeek. Danbolinean hamar kilo gaztaina erre zituzten, eta gero paperezko kukurutxoetan banatu. Gaztainak erre bitartean kantuan jardun zuten umeek eta irakasleek suaren inguruan. Bestalde, gaztetzekoek gaur ospatuko dute Gaztainerre jaia. 19:00etan gaztainak banatuko dituzte plazan eta gauean, 22:30ean, Lekeitioko Lapsus, Mitosia eta Kondaira taldeen kontzertua izango da gaztetzearan./I.A.

TEKNOLOGIA

GPS antena ipini nahi dute kanpandorrean

I.A.


Foru Aldundiak bi GPS antena ipini nahi ditu Gipuzkoan: Lazkao bat eta Elgetan bestea. Antena elizako kanpandorrean jaritzeko asmoa dute, eta datuak zehatzago jasotzeko balioko du.

GPS sistema amerikarrek asmatu zuten, bonbak botatzeko puntuak hobeto definitzeko. Berez sistema militarra bada ere, zehatzapen txikiagoarekin erabilpen zibila izan nahi du.

ERABILERA

Gauza oso zehatzetarako erabiltzen da: eraikinak neurtzeko, espaloi baten puntu zehatza finkatzeko, lurren mugak non dauden ikusteko, iturriak koordenadetan sartuta edukitzeko... Gehienetan, lan topografikoetan.

Donostian badago horrelako antena bat, eta bi berriekin osatua egongo da Gipuzkoako antenen beharra. Abendurako edo urtarrilerako sistema abian jarzea da asmoa.



Abendurako edo urtarrilerako ipini nahi dute antena martxan.

PILOTA

PARTIDUAK

AZAROAK 12, BARIKUA

21:00: Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre-
Mikel Larrea/Mikel Arkarazo

Ondoren, J. C. Errasti/Jesus Belamendia-
Jabier Otxoa/Mikel Elgoro

AZAROAK 14, DOMEKIA

11:00: Pello Larrea/Joseba-
Asier Morales/Fernando Zenitagoia

Ondoren, A. Arantzabal/A. Telleria-
Eduardo. Zubiaurre/J.M. Zubiaurre

Gero, J.M. Arantzabal/Migel Arantzabal-
Angel Ibarluzea/Txapel

EMAITZAK

Angel Ibarluzea/Txapel-
Mikel Larrea/Mikel Arkarazo 22-18

Koldo Goenaga/Roberto Basauri-
Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre 22-18

J.M. Arantzabal/Migel Arantzabal-
I. Ugarteburu/Enrike R. de Erentxun 22-8

Eduardo. Zubiaurre/J.M. Zubiaurre-
Jabier Otxoa/Mikel Elgoro 22-13

Alex Arantzabal/Alberto Telleria-
Asier Morales/F. Zenitagoia 22-15

Juan Carlos Errasti/Jesus Belamendia-
Pello Larrea/Joseba 22-11

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobetagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaituzte gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 